

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 634/2015 Erabakia, azaroaren 10ekoa, onartzen duena eranstea “Kudeaketa Gidalerro eta Neurriak” izeneko dokumentua (Entzia Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) onik zaintzeko eta hango habitata ez hondatzeko eta hango espezieetan alteraziorik ez eragiteko dokumentua, hain zuzen) Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren urriaren 6ko 188/2015 Dekretuari eta hura eranskin gisa argitaratzea

“ES210022 Entzia” izeneko Batasunaren garrantzizko lekua alde aurretik Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzeko prozesuan zehar, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 18ko 632/2014 Erabakiaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaizen “kudeaketa gidalerro eta neurriei”. Horiek, Eusko Jaurlaritzak lehendik onartutako kontserbazio helburuen ildotik, honako hauek jasotzen dituzte: eremuak onik zaintzeko neurri egokiak, habitat naturalen eta espezieen habitaten hondatzea saihesteko neurri egokiak, eta, orobat, espazioa garrantzizko lekutzat izendatzea eragin duten espezieei eragiten dieten alterazioak saihesteko neurri egokiak.

Dokumentua behin betiko onartu zen Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 2ko 286/2015 Erabakiak entzunaldiaren eta jendaurrean jartzearen izapidea igaro ostean.

Ondoren, 2015eko urriaren 6an, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren 188/2015 Dekretuaren bidez, Entzia Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu zen, zegozkion kontserbazio helburuekin.

188/2015 Dekretuaren 3. artikulua 2. idatz-zatiak agintzen du ezen leku hori kudeatzeko gidalerroak eta neurriak, Arabako Foru Aldundiak onartuak, dekretu horren eranskin gisa argitaratu behar direla, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Testu Bateginaren 22.5 artikulua ezarritakoaren konforme (Testu Bategina onartu zuen araua: 1/2014 Legintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa).

Beraz, Entzia KEBaren “Kudeaketa Gidalerro eta Neurriak” izeneko dokumentuaren behin betiko testua argitaratu beharra dago orain, 188/2015 Dekretu horren eranskin gisa.

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

LEHENA. Agintzea erants dakiola “Entzia ES210022 Kontserbazio Bereziko Eremuko “Kudeaketa Gidalerro eta Neurriak” izeneko dokumentua (KEB hori onik zaintzeko eta hango habitata ez hondatzeko eta hango espezieetan alteraziorik ez eragiteko “Kudeaketa Gidalerro eta Neurriak” dokumentua, hain zuzen) Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren 188/2015 Dekretuari eranskin gisa, dekretu horrek izendatzen baitu Entzia Kontserbazio Bereziko Leku, dagozkion kontserbazio helburuekin.

BIGARRENA. “Kudeaketa gidalerroak eta neurriak” agirian jasotako kudeaketa neurriak gauzatzeko zuzkidura ekonomikoak baldintza baten pean daude: hain zuzen, beharrezkoa da kasuan kasuko aurrekontuan baliabideak izendatuta eta erabilgarri egotea; edonola ere, agiri horretako kalkulu ekonomikoa egiten da 92/43/CE Zuzentarauaren 8. artikuluan aipatutako kofinantzaketa komunitarioari begira beharrezko irizten zaionerako.

HIRUGARRENA. Erabaki honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari, jakinaren gainean egon dadin, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko Legearen 22.5 artikulua jasotakoa betez (16/1994 Legea, ekainaren 30ekoa).

LAUGARRENA. Erabaki hau, eta berarekin batera "ES2110022 Entzia izeneko KEBaren Kudeaketa Gidalerro eta Neurriak" ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2015eko azaroaren 10a

Diputatu nagusia


RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

AMAIA BARREDO MARTÍN



AURKIBIDEA

1. KUDEAKETA JARRAIBIDEAK ETA NEURRI EDO JARDUKETAK
2. KUDEAKETA NEURRI EDO JARDUKETEN PROGRAMA ETA KALKULU EKONOMIKOAK.

1. KUDEAKETAKO GIDALERRO ETA NEURRIAK

Urriaren 10eko 2/2013 Legeak ekainaren 30eko 16/1994 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbatzearena, aldatzen du. Bada, 2/2013 Legeak zioen azalpenean dioenez, "Europako Erkidegoko araudiaren babespean sortutako guneen babeserako figurak aztertze mekanismo zehatza ezartzen du", zehazki, Natura 2000 Sarearen barruko naturagune babestuei dagokienez.

Hala, 2/2013 Legeak, 19.bis artikuluko 5. idatz zatian, zera ezartzen du: "Lurralde historikoetako foru organoek kudeaketa jarraibideak onartuko dituzte, kontserbazio helburuak oinarri hartuta, honako hauek jasoko dituztenak: eremuak kontserbazio egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko neurri egokiak eta inguru horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak ekiditeko neurriak."

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren urriaren 18eko 188/2015 Dekretuaren bidez (EHAO 203. zk., 2015eko urriaren 26koa) Entzia Mendilerroa, Iturrietako Mendiak eta inguruak Kontserbazio Bereziko Eremu - KEB izendatu ziren, eta haiek onik zaintzeko neurriak onartu ziren.

Agiri honetan, ES2110022 Entzia KEB/HBBEa kudeatzeko gidalerroak eta neurriak ezartzen dira, 188/2015 Dekretu horretan ezarritako kontserbazio oinarrien gainean.

FUNTSEZKO ELEMENTUAK

1. BERTAKO BASOAK

Kudeaketako neurriak, gidalerroak eta helburuak	
1. Azken helburua	Basoen azalerari eustea, eta baso helduen egituraren konplexutasun eta naturaltasun mailetan aurrera egitea.
1.1. Helburu operatiboa	Bertako basoen azalerari eustea.
Jarduerak	<ol style="list-style-type: none"> Basoko landaketen edota landaketa exotikoen plangintza egitea 1. gidalerroaren arabera. Gereziondo beltz amerikarra (<i>Prunus Serotina</i>) desagerrarazteko plana egitea. 9120 eta 9150 habitatak zabaltzeko aukerei buruzko azterlana egitea, kontuan hartuta, besteak beste, gaur egungo erabilera, lurzorua eta zuhaitziaren titulartasuna eta baldintza teknikoak. Aberasteko landaketak egitea larre ertzetako basoen atzerakada saihesteko, birsorkuntzarako banakako itxituren edota itxitura txikien bidez. Itxiturak modu irregularrean egingo dira, soilguneak eta trantsizioko arloak sortzeko bide emateko, belardi eta baso artean.
Kudeaketa gidalerroak	<ul style="list-style-type: none"> - Koniferoen baso landaketen eta/edo beste exotiko batzuen bilakaera sustatuko da, titulartasun publikokoak, lehentasunez, bertoko basoen eraketarako, edo larratze edo zuhaizdun larratzeetarako; edo horiek mantentzea sustatuko da. Hori guztia, koniferoen masetarako idazten den plangintzak ezartzen dituen jarraibideen arabera. - Koniferoen edota espezie exotikoen baso landaketen baso lanetan, bertako espezieen aniztasuna areagotzearen alde egingo da. - Organo kudeatzaileak emango dituen baimenetan baldintzak ezarriko dira larre ertzetako basoen atzerakada saihesteko eta zuhaitzen endurtzea edota ihartzea antzematen den bazkalekuetako egoera lehengoratzeko.
1.2. Helburu operatiboa	Bertako basoak kontserbatzea, berariazko aniztasuna eta egitura aniztasuna hobetuz
Jarduerak	<ol style="list-style-type: none"> KBEko basoen hasierako kontserbazio egoera kuantitatiboki aztertzea, Baso Inbentario Nazionalaren lurzatieen sare iraunkorra erreferentzia gisa hartuta. Prospekzio bat burutzea, okul ertainaren bikote ugaltzaileen kopurua eta presentzia egiaztatzeko. Zur hilaren balioak orientatzea ahalbidetuko duen azterlan bat egitea; kontuan hartuta, besteak beste, habitat motak, zuhaitzien bilakaeraren egoera, erabilerak eta espezie tipikoen beharrak. Baso tratamenduak egitea pagadi gazteetan, masaren berariazko aniztasuna eta egitura aniztasuna eta indarra hobetzeko. Bakanketak eta mozketak egitea erkamezti, amezti edota artadietan, berariazko aniztasuna eta egitura aniztasuna eta indarra hobetzeko. Gidaliburu bat egitea zuhaitzak mozteko markaketarako, besteak beste zuhaitzen egitura eta aniztasuna hobetzeko irizpideak eta basoko fauna eta floraren habitataren egoera hobetzeko irizpideak ezartzeko. Gidaliburuan hainbat argibide jasoko dira koniferoen edota espezie exotikoen landaketetan espezieen aniztasuna areagotzeko.

	<p>11. Elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georreferentziatuan barne hartu beharko dira interes ekologikoa duten zuhaitz zahar, hil edo lepatuak; zuhaitz lepatuen unadak edo zuhaitzi helduak; bigarren mailako espezie autoktono bereziak; faunarentzako, ihitokientzako eta ubideentzako ur puntu interesgarriak...</p>
Kudeaketako gidalerroak	<ul style="list-style-type: none"> - Basoak antolatzeko proiektuetan sustatuko da jabetza publikoko zuhaitzietako eremu esanguratsuak mugatzea, bertan jarduerarik egiterik izan ez dadin. - Intereseko zuhaitz hostogalkor autoktonoen (seneszenteak, motzak, oso helduak, oso handiak, adartsuak, espezie sekundarioetakoak, pizidoen habiak dituztenak...) presentzia mantendu eta sustatuko da. - Basolanen egutegia egokituko da, basoko intereseko faunan eragindako asaldurak gutxiagotzeko. - Bertako zuhaitzen aniztasuna areagotzea sustatuko da. Zehazki, haritzak eta haginak dauden KBeko inguruetan egindako basolanetan, espezie horiek sustatuko dira pagoen ordez. - Basoak leheneratzeko proiektuetan sustatuko da bertako habitateko landare espezieak erabiltzea. - Zuraren eta egurraren aprobetxamenduan, hildako zur bolumena handitzea sustatuko da. - "Egur hil eta erorien" aprobetxamenduak ezartzen diren zur hilaren balioen orientabideen mende egongo dira. - Mendi publikoak edo horiei dagozkien berrikuspenak antolatzeko proiektu eta planak egiteko jarraibide hauek kontuan hartu beharko dira: <ol style="list-style-type: none"> a) Entzia Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko baliatutako kontserbazio helburuak kontuan hartuko dira. b) Lurraldean garatzen diren erabilerak eta aprobetxamenduak plangintzan jasoko dira, arreta berezia jarriz zuraren ekoizpenean, artzaintzan eta balio naturalen hobekuntzan eta kontserbazioan. c) Ohiko aprobetxamenduak (zura, egurra eta larrea) sustatuko dira kontserbaziorako ezinbesteko erabilera gisa. d) Esku hartzerik jasango ez duten eremuak ezarriko dira. e) Lepatutako zuhaitzak eta interes bereziko zuhaitzak (faunarako balio handikoak, ondare balioa dutenak, bereziak, besteak beste) kontserbatzeko neurriak ezarri eta identifikatuko dira. f) Zur hilaren kantitatea aztertu eta, hala badagokio, kantitate hori handitzeko neurriak ezarriko dira. g) Hondatzeko arriskua duten zuhaitziak identifikatuko dira, eta prebentziorako edo kalteak konpontzeko neurriak zehaztuko dira (itxiturak, abeltzaintza zama arautzea, basoberritzea, eta abar). h) Artzaintzarako egutegia, abeltzaintza zamak eta aprobetxagai diren azalerak zehaztuko dira. i) Zuhaitzi bilakatzeotan dauden lahardi eta larreen azalerak identifikatuko dira, baita zuhaitzi bilakatze bidean daudenak kontserbatzeko neurriak ere, hala badagokio. j) Naturaltasun maila gehituko dute, arauk xedatzen dutena kontuan hartuta. k) Baso inbentarioaren diseinuan jasoko dira basoen kontserbazio

egoeraren jarraipena egiteko datuak.	
2. LARREAK ETA LAHARDIAK	
Kudeaketako neurriak, gidalerroak eta helburuak	
2. Azken helburua	Erkidegoaren intereseko lahardi eta larreen ordezkartza nahikoa kontserbatzea, kontserbazio egoera onean eta abeltzaintza zama orekatuari eutsiz dagoen bazka eskaintza kontuan hartuta.
2.1. Helburu operatiboa	Abeltzaintza modu egokian kudatzea larre eta lahardien habitatak kontserbazio egoera onean daudela bermatzeko.
Jarduerak	<p>12. Jardunbide egokiei buruzko gidaliburua idaztea Entziako KBEko mendi publikoetako larreen aprobetxamendurako.</p> <p>13. KBEko mendi publikoetako larreen aprobetxamendurako jardunbide egokien gidaliburua argitaratu eta zabaltzea tokiko erakundeen abeltzainen eta partzuergoen artean.</p> <p>14. KBEko larreak erabiltzen dituzten ustiategiei buruzko azterketa sozioekonomiko bat egitea, kontuan hartuta jatorria, ustiategien ekoizpen orientazioa, titularren karakterizazioa eta etorkizunerako aurreikuspenak. Azterketan larreen garrantzia sozial eta ekonomikoa aztertzeke balorazioa ere jasoko da.</p> <p>15. Zuhaitzen endurtzea edota ihartzea antzematen den bazkalekuetako egoera lehengoratzeko, birsorkuntzarako banakako itxiturak edota itxitura txikiak egitea. Itxiturak modu irregularrean egingo dira, soilguneak eta trantsizioko arloak sortzeko bide emateko, belardi eta baso artean.</p> <p>16. Askak berriztatzeke jarduerak burutzea, anfibioak kontserbatze aldera egokitzeke.</p>
Kudeaketako gidalerroak	<p>- Arabako Foru Aldundiak egindako Entziako KBEko mendi publikoetako larreen aprobetxamendurako jardunbide egokien gidaliburuan ezarritakoa aplikatzea bultzatuko da.</p> <p>- Organo kudeatzaileak lur gutxiko larreen aprobetxamendua baldintzatuko du, haien galera eta narriadura saihesteko. Lur horietan zelaian eragin txikiena duten abere espezien larratzea sustatuko da, eta, gainera, abere zama txikiarekin.</p> <p>- Eskumena duen organo kudeatzaileak ezarri beharreko ingurumen baldintzen eta neurri zuzentzaileen helburu izango da babes berezipeko araubideari lotutako larre eta lahardietan (Europar Batasunaren Intereseko Habitatak eta lehentasunezkoak) eragina minimizatzea.</p> <p>- Itxitura berriak eraikitzean kontuan hartu beharko da basoko fauna bertatik igarotzeko material egokiena.</p>
2.2. Helburu operatiboa	Lahardi eta larreen azalera eta kalitatea mantentzea, bilakaera naturalaren prozesuak eta erabileraren aldaketak kontrolatuz.
Jarduerak	<p>17. Jarraipenerako plan bat ezartzea airetik ateratako argazkiak erabiliz eta lekuan bertan egindako egiaztapenen bidez. Hala, lahardiaren eta larrearen arteko (eta katalogatutako beste habitat moten arteko) bilakaeraren dinamika denboran aztertu ahal izateko.</p>
Kudeaketako gidalerroak	<p>- Mendiko larreak kontserbatzeke LGPan ezarritako neurrien aplikazioa sustatuko da Entzian.</p> <p>- Ingurune kontratuak sinatzea sustatuko da, larreak kontserbazio egoera onean mantentzeko eta abeltzaintza estentsiboak eragindako inguruneke kanpo efektuak saritzeko.</p> <p>- Iratzez betetako eremuak teknika egokiak erabiliz berreskuratzea aztertuko da.</p>

- Larreak hobetu eta mantentze aldera sastrakak kentzeko jarraibide hauek hartu beharko dira kontuan:
- Basoaren alboko 5 metroko zerrendan ez da sastrakak kentzeko lanik egingo, ezta ekotonoen eta orla landarediaren birsorkuntza susta dezaketen ur ibilgu eta amildegietatik 10 m baino gutxiagoko distantzian ere.
- Lahardietan ez dira sastraka guzti-guztiak kenduko, unada txiki batzuk garbitu gabe utziko dira, eta lahardiaren eta larrearen artean muga irregularrak egingo dira.

3. ERRUPIKOLEN KOMUNITATEAK

Kudeaketako neurriak, gidalerroak eta helburuak	
3. Azken helburua	Mehatxatuta dauden errupikola espezie guztien populazio bideragarriak mantentzea eta KBeko baldintzak hobetzea, ugatza mendebaldera hedatu dadin, hala, KBEn eta KBE inguruan lurralde ugaltzaile egonkor bat finkatuz.
3.1. Helburu operatiboa	Mehatxatuta dauden harkaitzei lotutako espezien populazioen egungo kontserbazioaren egoera ezagutzea.
Jarduerak	<p>18. Prospekzioak egitea banaketa eremua ezagutzeko eta Arnica montana, Aconitum anthora, Carlina acaulis ssp. caulescens, Armeria pubinervis, Saxifraga losae, Arenaria vitoriana, Erodium glandulosum eta Genista eliasenneni populazioak antzeman, kartografiatu eta zentsatzeko. Aipatu ez diren baina bertan egon litezkeen espezieen balizko habitatak (edo aipatu arren berriz aurkitu ez direnak) ere jaso beharko dira, populazioen kontserbazioaren egoerari buruzko diagnostikoa eginez eta mehatxu maila handia duten populazioak identifikatuz, eremuaren erabileren arabera. Halaber, populazio horien joerak eta egoera neurtzeko jarraipen programak ezarriko dira.</p> <p>19. Sai zuriaren, belatz handiaren, arrano beltzaren eta hontz handiaren KBeko troketako habia inguruak ezartzea eta mugatzea, eta urtean behin jarraipena ematea espezie horien populazioari eta ugalketari.</p> <p>20. Harraparietzako eta beste hegazti errupikola batzuentzako interes eremuak eta guneak mugatzea; horiek basoko fauna eta florarentzat balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georreferentziatuan sartzeta.</p> <p>21. KBeko sai zuri eta sai arrearen populazioaren eta ugalketa parametroen jarraipena egitea. Ugatz helduen edo ia helduen behaketak eta aipamen guztiak egiaztatuko dira, balizko sakabanaketa areak antzemateko, baita lurralderik ez duten aleen behin-behineko asentamenduak edo sortu diren bikote berriak antzemateko ere. Aldi berean egindako erroldetan parte hartuko da.</p> <p>22. Aldi berean egingo dira urteroko erroldak, beste autonomia erkidego batzuekin koordinatuta, nazioko estrategia eremuan, ugatzaren banaketa area zehazteko.</p>
3.2. Helburu operatiboa	Errupikolen komunitateak mehatxatzen dituzten faktoreak ezabatu eta saihestea
Jarduerak	23. Erabilera publikoko jarduerak errupikolen komunitateetan duten eragin maila aztertzea eta, hala komeni dela ikusiz gero, kontserbazio egoera kaltetu dezaketen jarduerak arautzea proposatzea.

	<p>24. KBEren esparruan eta inguru hurbilean dauden linea elektrikoaren arazoa aztertuko da. Hegaztiekin talka egiteko edo elektrokutatzean dituzten arriskuak identifikatuko dira. Titular diren erakundeekin batera arriskua duten lineetan jarduteko plan bat egingo da, mailaka zuzentzeari ekiteko.</p> <p>25. Gainkarga-hariak eta eroaleak seinalezatzea hegaztiak salbatzeko balizen bidez, talka egiteko arriskua gutxitzeko Entzia Mendilerroa zeharkatzen duen Iturrieta landetako linea elektrikoan. Horrez gain, hegaztiekin talka egiteko edo elektrokutatzean dituzten arriskuak badira, KBEren inguru hurbilean dauden linea elektriko guztiak mailaka zuzentzeari ekingo zaio.</p> <p>26. Pozoidura gertatu dela susmatzen den kasuetarako jardueren protokoloa KBEren lan egiten duten landa langileen artean zabaltzea.</p> <p>27. KBEko ehiza eremuari buruzko antolamendu planak berrikustea, besteak beste:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Babes bereziko espezieei zuzenean eraginik, arriskurik edo eragozpenik ez sortzeko neurriak edo gidalerroak. Horrez gain, ehiza espezieak ehizatzean garaiak edo debekaldiak edo erreserbak egokitzea, kontserbazio helburuekin bateragarriak direla ziurtatzeko. - Zaborra eta kartutxoak pilatzea ekiditeko neurriak. - Zaintza eta kontrol zerbitzuak hornitzeko gutxieneko premiak. <p>28. Entziako KBE HBBZ izendatzeko proposamena egitea, kontuan hartuta eremuak daukan aparteko balioa, ugatzaren eta beste harraparien kontserbazioari dagokionez, ez bakarrik EAEn, baita Europa mailan ere.</p>
Kudeaketako gidalerroak	- Mehatxatutako espezieen populazioengan eta komunitateengan eragina izan dezaketen azpiegitura berriak eta instalazioak jartzea saihestuko da hegazti errupikolak dauden zonetan eta eragin eremuetan.

4. ANFIBIOAK

Kudeaketako neurriak, gidalerroak eta helburuak	
4 Azken helburua	Gailurretako uhandreen, apo lasterkarien, baso igel jauzkarien eta baso igel iberiarren populazioak autoerregulatuta eta interkonektatuta egotea.
5.1. Helburu operatiboa	Anfibioen populazioek Entzian duten kontserbazio egoera, banaketa eta kontserbazioaren aldeko egoerarako muga faktoreak zehatz-mehatz ezagutzea.
Jarduerak	<p>29. KBEren anfibioen kontserbaziorako area garrantzitsuak identifikatzea eta horien kartografia egitea, ugaltzeko areak eta populazioari eusteko beste area erabakigarri batzuk barne, eta populazioen une honetako tamaina eta banaketa ezartzea.</p> <p>30. Lekuko anfibioen populazioak aldizka monitorizatzea, KBEko hezeguneak eskakizunetara ekologikoki egokitzen diren aztertuz eta anfibioen komunitatearengan izan ditzakeen eraginak identifikatuz.</p>
4.2. Helburu operatiboa	Existitzen diren urmaeletan anfibioentzako baldintza ekologikoak hobetzea, beharrezkoa bada, eta urmael berriak sortzea, anfibioak ugaltzea errazteko.
Jarduerak	<p>31. Urmaelak edota enklabe hezeak berreskuratzeko jarduerak garatzeko leku potentzialak identifikatzea, edota urmael gehiago sortzeko, anfibioak ugaltzeko, existitzen diren populazioen artean konexio onena bilatuz, eta garatzeko programa lehenetsi bat ezartzea.</p> <p>32. Ertzen perimetroan landaredia zerrendak egokitzea, hala behar duten urmaeletan, anfibioak sakabanatzea errazteko areak eta babeslekuak</p>

	<p>sortuz. Ingurumena zuzentzeko eta babesteko neurriak hartuko dira, hezegune horietatik hurbileneko inguruetan.</p> <p>33. Anfibioen populazioak nahastea eta haiek beren ugaltze tokietara heltzea eragozten duten jarduketak identifikatzea eta desagerraraztea.</p>
Kudeaketako gidalerroak	<p>- Urmael sortu berriak, ahal dela, elkarrengandik edo lehenago zegoen beste urmael batetik gehienez 500 metroko distantziara kokatuko dira; anfibioen espezie gehienak gai dira distantzia hori ibiltzeko egiten dituzten migrazioko joan-etorrietan.</p> <p>- Urmael berriak sortzean edo daudenei eragiten dieten jarduerak egitean, saihestu egingo dira anfibioentzat kaltegarrienak izan daitezkeen sasoiak.</p> <p>- Itxiera perimetrala daukaten urmaelen kasuan, KBEko Larreak Antolatzekeo Planean ezarritakoaren arabera (32. neurria), inguruetan aziendako animalientzako aska bat jartzea aztertuko da, anfibioek erabiltzeko ere egokituta egongo dena.</p> <p>- Anfibioentzako urmael berriak sortzeko, anfibioentzako egokiak diren ekosistemak birsortzeko ezarritako protokolei jarraituko zaie, hau da, behintzat, basoaren morfologia irregularrak diseinatuko dira eta ur bazterren maldak 30º-tik beherakoak izango dira.</p>
4.3. Helburu operatiboa	Anfibioen populazioentzat arriskutsuak diren faktoreak edo heriotza ez naturaleko faktoreak desagerraraztea.
Jarduerak	<p>34. Hezeguneetako espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzea eta, hala badagokio, desagerraraztea, espezie exotiko inbaditzaileak eta anfibioen lehiakide izanik txertatutako beste espezie batzuk antzeman daitezkeen hezeguneen kasuan.</p> <p>35. Anfibioen balizko heriotza tarteak antzematea errepideetan eta, hala badagokio, kasuan kasuko neurri zuzentzaileak aplikatzea.</p> <p>36. Hobiak eta beste egitura batzuk definitzea eta eraikitzea, anfibioak elkartzera bideratuak, hala nola irteera arrapalak eta albo ihesbideak irekitzea.</p> <p>37. Kanadar pasabideen egitura aztertzea, anfibioentzat heriotza eragingo dien tranpa izatea saihesteko; hala badagokio, hobietan iragazkortasunerako hobekuntzak egitea, hau da, irteera arrapalak instalatzea eta albo ihesbideak irekitzea.</p>
Kudeaketako gidalerroak	- Pasabide berriak eraikitzeko eta gaur egun dauden pasabideak egokitzeko gidalerroak definitzea, anfibioentzat heriotza eragingo dien tranpa bihurtzea saihesteko; hala badagokio, hobietan iragazkortasunerako hobekuntzak egitea, hau da, irteera arrapalak instalatzea eta albo ihesbideak irekitzea.

5. KIROPTEROAK

Kudeaketako neurriak, gidalerroak eta helburuak	
5. Azken helburua	Gaur egun dauden kiroptero espezie guztien presentzia iraunkorra bermatzea
5.1. Helburu operatiboa	KBEko kiroptero espezieen populazioen egoera eta banaketa zehatz-mehatz ezagutzea, baita kontserbazioaren aldeko egoerarako muga faktoreak ere.
Jarduerak	38. Entzia KBEen dauden kiroptero espezieak zehaztea, eta, era berean, babeslekuak, garrantziko eremuak, mehatxuak eta asaldurak identifikatzea, eta espezieek habititari ematen dioten erabileraren ezaugarriak ezartzea eta euren banaketa kartografiatzea. Kiropteroek koloniza ditzaketen KBE barruko eraikinak berrikustea jasotzea. Ondorio horietarako area garrantzitsuak "Basoko fauna eta florarentzat balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georreferentziatuan" sartzea. 39. Galzorian dauden kiroptero espezieen populazioei eta katalogatutako gainontzeko espezieei jarraipena ematea aldiari behin, ugaritasuna kontuan hartuz eta aurreko jardueran aurkitutako babeslekuak berraztertuz.
Kudeaketako gidalerroak	- "Ebaluazio egokia"ren prozeduretarako beharrezko fauna azterketak behar beste denboraz egin beharko dira, eta, gutxienez, ahultasun handieneko aldiak jaso beharko ditu, alegia, hazkuntza eta migrazio aldia.
5.2. Helburu operatiboa	Babeslekuaren erabilgarritasuna, baliabide trofikoak eta joan-etorriak errazteko elementuak ugaritzea, eta kiroptero populazioen asaldura faktoreak ezabatzea.
Jarduerak	40. Behar diren azterlanak egingo dira kiropteroen habitat garrantzitsuetan turismo, basogintza, kirol eta beste jarduera batzuek duten eragina ebaluatzeko; eta hala ondorioztatzen bada, jarduera horiek arautuko dira. 41. Inbentario ireki georreferentziatuan sartzea heskai naturalak, zuhaixka erako bigarren mailako espezieen unadak eta baso orlak, kiropteroen joan-etorrietarako eta harrapakinak ugaritzeko interesekoak izan daitezkeenak.
Kudeaketako gidalerroak	- Kiropteroen edo beste animalia espezie kalteberarik hautematen bada, basogintza lanak espezie horren biologia behar eta berezitasunei egokitu zaizkie. - Baso helduen kudeaketari, lahardi eta larreak mantentzeari, baso eta erreka ondoak sasiz garbitzeari eta kiropteroentzako habitat egokiak garbitzeari buruzko gidalerro guztiak beteko dira. - Haitzuloetara bisitak egiteko baimena Entzia KBEren organo kudeatzaileak emango du, eta ondorengo debekuak jasoko ditu: bertako animaliak gogaitzea, animaliei argazkiak ateratzea, azetilen argintziak erabiltzea, edozein motako hondakin eta hondarrak (organikoak zein inorganikoak) bertan uztea eta elikagaiak jatea. - Oso eskueran dauden koloniak edo babeslekuak antzematen badira, unean uneko eta beren beregiko prebentzio neurriak hartuko dira kontuan; besteak beste, zulook ixtea. - Kontuan izango dira kiropteroen ekologia eskakizunak egitura berriak eraikitzean eta KBEko eremu barruko azpiegitura edo eraikinak edo kultura ondare direnak zaharberitzeko jardueretan. Kiropteroen koloniak

	daudenetan, ugalgaraietan, debekatuta egongo da eraikinak zaharberritzea eta teilaberritzea. Horrelakoetan, organo kudeatzaileari jakinarazitakoan, epe zehatza zehaztuko da.
5.3. Helburu operatiboa	Kiropteroen garrantzia ezagutara ematea.
Jarduerak	42. Tokiko herritarrei eta administrazioetako landa langileei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak diseinatu eta egitea honakoak azalduz: kiropteroen garrantzia, pertsonentzako onurak, eraikinetan edo baserrietan egindako lanek saguzarrengan sor ditzaketan gaitzak eta zuhaitzi hilek edo zaharkituek eta euren organismo kidetuek daukaten garrantzia.

KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK

BIODIBERTSITATEARI BURUZKO EZAGUTZAK ETA INFORMAZIOA

Kudeaketako neurriak, gidalerroak eta helburuak	
6 Azken helburua	Entziako biodibertsitatearen oinarritzko kontserbazio egoera eta galtzea edo hondatzea eragin dezaketan arrazoiak behar beste zehaztasunez ezagutzea, epe luzeko mantentzea bermatzen duten beharrezko neurriak diseinatu ahal izateko.
6.1. Helburu operatiboa	Eguneratutako kartografia bat prestatu da, kontserbaziorako habitat interesgarri guztiekin eta Entziako biologia dibertsitatearako eta osotasun ekologikorako garrantzitsuak diren kultura eta natura enklabe edo elementu guztiekin.
Jarduerak	43. "Basoko fauna eta florarentzat balioa duten edo berezitasun geologikoa duten elementu natural eta geomorfologikoen inbentario ireki georeferentziatu" bat sortzea eta modu jarraituan eguneratzea. Inbentarioan, jasotako elementuen ezaugarriak adierazi beharko dira eta, behintzat, bertan jasotzeko arrazoiak zein diren.
6.2. Helburu operatiboa	Galzorian dauden habitat guztien kontserbazio egoera ezagutzea, baita babes bereziko araubideko basa espezieena ere.
6.3. Helburu operatiboa	Bada kalkulu bat Entziako biologia aniztasunak duen balio ekonomikoarena, baita bertako ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuena ere.
Jarduerak	44. Azterlan bat egitea tresna honetan jasotzen diren neurriak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta errenta galera hori orekatzeko zenbateko eta bitartekoei buruzkoa. 45. Entziako KBeko biologia aniztasunaren eta haren ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomikoa aztertzea.
6.4. Helburu operatiboa	Istripu ugariko guneen mapa bat egin da KBEn eta bere inguruan basoko faunaren hilketak ez naturalerako.
Jarduerak	46. Entziako KBE eta inguruetatik datozen eta Martiodako Faunaren Suspertegian sartzen diren basa espezie guztien erregistro informatikoa egitea. Bertan, honako datu hauek jasoko dira: lesio mota, arrazoiak eta non batu den. 47. Gune beltzen mapa bat egitea; bertan, honako hauei buruzko informazio georeferentziatua jasoko da: linea elektrikoaren edo beste azpiegitura batzuen aurka izandako talkak eta elektrokutatuta, tiroz, pozoiz, harrapatuta edota heriotza ez naturalen ohiko beste edozein arrazoigatik gertatutako heriotzak. Neurri zuzentzaileak proposatuko dira, plan honetan eta hurrengoetan sartzeko, baita plan, programa eta proiektuen ingurumen

	<p>ebaluazioetan aintzat hartzeko ere.</p> <p>48. Lurraldean maiz ibiltzen diren abeltzain, mendiko elkarte eta beste kolektibo batzuei, baina, bereziki, Erroeta, Erroitegi eta Zekuianoko herritarrei, jakinaraziko zaie mapa egingo dela, eta ingurumenaz arduratzen den saileko langileak begiztatzeen berri ematera animatuko dira.</p>
Gidalerroak	<p>- Jaki pozoitsuen erabilera antzematen bada, kontuan hartuko dira "Natura gunean pozoidun karnatak legez kanpo erabiltzearen aurkako Estrategia Nazionalen xedatutako neurriak.</p>



Kudeaketako neurriak, gidalerroak eta helburuak	
7 Azken helburua	Entziako KBE kontserbatzeko herritarren inplikazioa sustatzea.
7.1 Helburu operatiboa	Herritarrei aldizka informazio ulergarria ematea, Entziako biodibertsitatearen kontserbazio egoerari, aurkako egoerak sortzen dituzten arrazoei, horri buruzko politika publikoei eta emaitzei buruzkoa.
Jarduerak	<p>49. Herritarrentzat Entziako KBEri buruzko informazio ulergarria eguneratzeko prozesuak hobetzea.</p> <p>50. Iturrietako Granjako instalazioen aprobetxamendu aukerak aztertzea, bisitarienzako zentro bat eta EAeko basoetan eta nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza ustiategi iraunkorrean arreta jartzen duen interpretazio programa bat ezartzeko.</p> <p>51. KBEren ezaugarri bereziak edo erabilera publiko berezia duten lekuetan, ingurune bakoitzari egokitutako seinaleak instalatuko dira, KBE nahiz haren ingurumen balioak identifikatzeko.</p> <p>52. Munain edo Okarizen interpretazio panel bat jartzea, biodibertsitatean zuhaitz zaharrek duten garrantzia azaltzeko.</p> <p>53. Jada dagoen Munain-Okariz ibilbidea aprobetxatuz, ibilbide didaktiko bat egokitzea; bertan, zuhaitz bereziak dituzten unadak, mota askotako basoak eta otalurreko hainbat elementu ikusi ahal izango dira.</p> <p>54. Jendeari jakinarazi basogintza kudeaketa giltza izan daitekeela baso habitaten zaintza helburuak lortzeko.</p> <p>55. KBEri eta bere helburuei buruz herritarrek duten ezagutza, jarrera eta jokabidea aztertzeko aldizkako ebaluazioak egitea; horrela, komunikazio, hezkuntza eta sentsibilizazio ekintzak berriro orientatu ahal izango dira.</p>

GOBERNANTZA

Kudeaketako neurriak, gidalerroak eta helburuak	
8 Azken helburua	Organo eskudun guztien, publiko zein pribatu, erakundeen arteko koordinazioa hobetzea eta dagoen ingurumen eta sektore araudi guztia egokitzea, dokumentu honekin koherentea izan dadin.
8.1 Helburu operatiboa	Leheneratze eta kontserbatze neurriak aplikatzeko eskumena duten erakundeekin batera batzorde tekniko iraunkor bat sortzea.
8.2. Helburu operatiboa	Dagoen ingurumen eta sektore araudi osoa egokitzea, dokumentua errazago aplikatu ahal izateko.
Kudeaketako gidalerroak	- Natura 2000 barruko naturgune babestu izaera duenez, lurralde antolamenduko tresnek eta hirigintza planeamenduak saihestuko dute lurzoru urbanizaezina lurzoru urbanizagarri edo hiri lurzoru gisa birsailkatzea edo artifizializatzea, habitat natural moten eta eremu horietako espezieen kontserbazioa bermatzeko.

INGURUMENA LEHENGORATZEA ETA KONEXIO EKOLOGIKOA**INGURUMENA LEHENGORATZEKO ETA KONEXIO EKOLOGIKOA SENDOTZEKO JARDUERAK**

Kudeaketako neurriak, gidalerroak eta helburuak	
9 Azken helburua	<i>KBEren barruan dauden hondatutako eremuen inbentarioa egitea, eta horiek lehengoratzea.</i>
9.1 Helburu operatiboa	Dauden isurketa iturriak ezagutzea, eta horiek kaltetutako eremuak berreskuratzeari ekitea. Beste eragin batzuek hondatutako eremuak ezagutzea (higadurak, harrobi eta legar hobi zaharrak, etab.).
Jarduerak	56. Isurketa iturrien eta beste eragin batzuen inbentarioa egitea. 57. Kontrolik gabeko isurketen eragina jasan duten eremuak lehengoratzea, honako hauek kontuan hartuta: 1) hondakinak kentzea, eta geroago tratatu eta behar bezala kudeatzea. 2) hondatuta dauden espazioak ingurumen aldetik lehengoratzea, babestutako habitatak lehengoratzeko. 58. Beste eragin batzuek (higadurak, harrobi eta legar hobi zaharrak, etab.) hondatutako eremuak berreskuratzea, espazio horiek ingurumen aldetik lehengoratzeko.
9.2 Helburu operatiboa	KBEren barruko eta KBE eta gertuko beste espazio batzuen arteko konexioa sustatzea

Jarduerak

59. Lotura ekologikoaren arloan onartutako estrategiak aplikatzea, KBEn batasunaren intereseko eta/edo lehentasunezko habitaten arteko lotura bultzatzeko, bai eta hurbil dauden Natura 2000 Sareko beste habitak katalogatu batzuekin eta orokorrean mugakide diren eta ingurumen aldetik interesa duten esparruekin ere. Lotura aldetik interesa duten guneak identifikatu, eta bidezkoa bada kontserbatzeko eta hobetzeko jarduketak inplementatuko dira.

2. KUDEAKETAKO NEURRI EDO JARDUEREN PROGRAMA ETA KALKULU EKONOMIKOAK.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 19 bis artikuluan ezarrita dagoena betetzeko (urriaren 10eko 2/2013 Legearen bidez aldatuta), jarraian Programa honetako jarduera eta neurriei dagozkien kalkulu ekonomikoak zehaztuko dira.

16/1994 Legearen 19 bis.3. artikulua:

Txostenak, bere tramitazioaren hasierako faseetatik hasita, memoria ekonomiko bat izango du, zeinak espresuki jasoko dituen 92/43/EE Zuzentarauaren 8. artikuluan jasotako baterako finantzaketa komunitarioaren arabera beharrezkotzat hartzen diren aurreikuspenak.

Jarraian, aipatu den 8. artikulua hori transkribatuko da, zehazki 1. eta 2. puntuak:

- 1. Kontserbazio bereziko eremu izendatu ahal diren eta barnean lehentasunezko habitat naturalak eta/edo lehentasunezko espezieak dituzten lekuei buruz proposamenak egiten dituzten aldi berean, Estatu kideek Batzordeari haien kalkuluak bidaliko dizkiote, bidezkoa denean, Europako Batasunaren finantzaketari buruz egokitzen jotzen dutena dela-eta, 6. artikuluko 1. Idatz zatian hitzartuta dagoenaren arabera haien betebeharrak bete ahal izateko.*
- 2. Estatu kide bakoitzarekin ados jarrita, finantzaketa eskatzen deneko leku garrantzitsuetarako, Batzordeak zehaztuko ditu ezinbestekoak diren neurriak, lehentasunezko habitat naturalen kontserbazio egoera mantendu edo lehengoratzeko, eta neurri horien ondoriozko kostu osoak ere zehaztuko ditu.*

FUNTSEZKO ELEMENTUA	Neurria/Jarduera	Kostua euroak
BERTAKO BASOAK	1. Basoko landaketen edota landaketa exotikoen plangintza egitea 1. gidalerroaren arabera.	4.500
	2. Gereziondo beltz amerikarra (Prunus Serotina) desagerrarazteko plana egitea.	3.000
	3. 9120 eta 9150 habitatak zabalitzeko aukerei buruzko azterlana egitea, kontuan hartuta, besteak beste, egungo erabilera, lurzoruaren eta zuhaitziaren titulertasuna eta baldintza teknikoak.	3.500
	4. Aberasteko landaketak egitea larre ertzetako basoen atzerakada saihesteko, birsorkuntzarako banakako itxuren edota itxitura txikien bidez. Itxiturak modu irregularrean egingo dira, basoaren eta belardien artean trantsizio-guneak eta soliguneak sortzea sustatzeko.	20.000
	5. KBEko basoen hasierako kontserbazio egoera kuantitatiboki aztertzea, Baso Inbentario Nazionalaren lurzatiaren sare iraunkorra erreferentzia gisa hartuta.	2.500
	6. Prospekzio bat burutzea, okil ertainaren bikote ugaltzaileen kopurua eta presentzia egiaztatzeko.	6.000
	7. Zur hilaren balioak orientatzea ahalbidetuko duen azterlan bat egitea; kontuan hartuta, besteak beste, habitat motak, zuhaitz-tien bilakaeraren egoera, erabilerak eta espezie tipikoen beharrak.	4.000
	8. Baso tratamenduak egitea pagadi gazteetan, masaren berriazko aniztasuna eta egitura aniztasuna eta indarra hobetzeko.	0

FUNTSEZKO ELEMENTUA	Neurtia/Jarduera	Kostua euroak
	9. Bakanketak eta mozketak egitea erkamezti, amezti edota artadietan, berriazko aniztasuna eta egitura aniztasuna eta indarra hobetzeko.	-
	10. Gidaliburu bat egitea zuhaitzak mozteko markaketarako, besteak beste zuhaitzen egitura eta aniztasuna hobetzeko irizpideak eta basoko fauna eta floraren habitataren egoera hobetzeko irizpideak ezartzeko. Gidaliburuan hainbat argibide jasoko dira koniferoen edota espezie exotikoen landaketetan espezieen aniztasuna areagotzeko.	5.000
	11. Elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georreferentziatua barne hartu behariko dira interes ekologikoa duten zuhaitz zahar, hil edo lepatuak; zuhaitz lepatuen unadak edo zuhaitzi helduak; bigarren mailako espezie autoktono bereziak; faunarentzako, inhitokientzako eta ubideentzako ur puntu interesgarriak...	2.000
LARREAK ETA LAHARDIAK	12. Jardunbide egokiei buruzko gidaliburua idaztea Entziako KBEko mendi publikoetako larreen aprobetxamendurako.	1.000
LARREAK ETA LAHARDIAK	13. KBEko mendi publikoetako larreen aprobetxamendurako jardunbide egokien gidaliburua argitaratu eta zabaltzea tokiko erakundeen abeltzainen eta partzuergoen artean.	4.000
LARREAK ETA LAHARDIAK	14. KBEko larreak erabiltzen dituzten ustategiei buruzko azterketa sozioekonomiko bat egitea, kontuan hartuta jatorria, ustategien ekoizpen orientazioa, titularen karakterizazioa eta etorkizunerako aurreikuspenak. Azterketan larreen garrantzia sozial eta ekonomikoa aztertzeke balorazioa ere jasoko da.	10.000
LARREAK ETA LAHARDIAK	15. Zuhaitzen endurtzea edota ihartzea antzematen den bazkalekuetako egoera lehengoratzeko, birsorkuntzarako banakako itxiturak edota itxitura txikiak egitea. Itxiturak modu irregularrean egingo dira, soliguneak eta trantsizioko arloak sortzeko bide emateko, belardi eta baso artean.	10.000

FUNTSEZKO ELEMENTUA	Neurtia/Jarduera	Kostua euroak
	16. Askak berriztatze jarduerak burutzea, anfibioak kontserbatze aldera egokitzeko.	30.000
ERRUPIKOLEN KOMUNITATEAK	17. Jarrapenerako plan bat ezartzea airetik ateratako argazkiak erabiliz eta lekuan bertan egindako egiaztapenen bidez. Hala, lahardiaren eta larrearen arteko (eta katalogatutako beste habitatat moten arteko) bliakaeraren dinamika denboran aztertu ahal izateko.	10.000
	18. Prospekzioak egitea banaketa eremua ezagutzeko eta Arnica montana, Aconitum anthora, Carlina acaulis ssp. caulescens, Armeria pubinervis, Saxifraga losae, Arenaria vitoriana, Erodium glandulosum eta Genista eliasenneni populazioak antzeman, kartografiatu eta zentsatzeko. Aipatu ez diren baina bertan egon litezkeen espezieen balizko habitata (edo aipatu diren baina berriz aurkitu ez direnak) ere jaso behar dira, populazioen kontserbazioaren egoerari buruzko diagnostikoa eginez eta mehatxu maila handia duten populazioak identifikatuz, eremuaren erabileren arabera. Populazioen joerak eta egoera ebaluatu ahal izateko parametro neurgarriak ezarriko dira.	18.480
	19. Sai zuriaren, belatz handiaren, arrano beltzaren eta hontz handiaren KBEko troketako habia inguruak ezartzea eta mugatzea, eta urtean behin jarraipena ematea espezie horien populazioari eta ugalketari.	19.800
ERRUPIKOLEN KOMUNITATEAK	20. Harrapantza interes eremuak eta gunek mugatzea; eta horiek basoko fauna eta florarentzat balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georreferentziatua sartzeko.	3.000
	21. Ugatzaren eta sai zuriaren populazio ugaltzaile ia helduaren aldi bereko erroldetan parte hartzea eta hegazti horien jarraipen bat egitea KBEen. Hala behar denean, ugalketa parametroen jarraipen bat egingo da, espezie-alerik agertu ote den eta bajarik edo ordezkapenik egon den egiaztatzeko eta egon daitezkeen mehatxuak aztertzeke. Ugatz helduen edo ia helduen behaketak eta aipamen guztiak egiaztatuko dira, balizko sakabanaketa areak antzemateko, baita lurralderik ez duten aleen behin-behineko asentamenduak edo sortu diren bikote berriak antzemateko ere.	19.800
	22. Aldi berean urteroko erroldak egitea, beste autonomia erkidego batzuekin koordinatuta, nazioko estrategia eremuan, ugatzaren banaketa area zehazteko.	10.000
	23. Erabileren publikoko jardueren erripliken komunitateetan duten eragin maila aztertzea eta, hala komeni dela ikusiz gero, kontserbazio egoera kaltetu dezaketen jardueren arauetza proposatzea.	4.500

FUNTSEZKO ELEMENTUA	Neurtia/Jarduera	Kostua euroak
	24. KBEren esparruan eta inguru hurbilean dauden linea elektrikoaren arazoa aztertu da. Hegaztiak talika egiteko edo elektrokutatzeke dituzten arrikuak identifikatu dira. Titular diren erakundeekin batera arrikuak duten lineetan jarduteko plan bat egingo da, linea horietan taliken aurkako gailuak eta elektrokuzioaren aurkako neurriak ezartzeko.	10.000
	25. Gainkarga-hariai eta eroaleak seinaleztatzea hegaztiak salbatzeko balizen bidez, talika egiteko arrikuak gutxitzeko Entzia Mendilerroa zeharkatzen duen Iturrieta landetako linea elektrikoan. Horrez gain, hegaztiak talika egiteko edo elektrokutatzeke arrikuak badira, KBEren inguru hurbilean dauden linea elektriko guztiak mallaka zuzentzeari ekingo zaio.	60.000
	26. Basa Animalien eta Landareen Batzordearen Ekotoxikologiako Lan Taldeak proposatutako pozoidura kasuetarako jarduera protokoloa zabaltzea KBEko administrazio kudeatzaileko landa langileen artean. Agintari eskudunek laginak jasoko dituztela bermatzea.	-
	27. KBEko ehiza eremu buruzko antolamendu planak berrikustea (VI-10059, VI-10162 eta VI-10163).	3.000
	28. Entziako KBE HBBZ izendatzeko proposamena egitea, kontuan hartuta eremuak daukan aparteko balioa, ugatzaren eta beste harraparien kontserbazioari dagokionez, ez bakarrik EAEn, baita Europa mailan ere.	-
	29. KBEn anfibioen kontserbaziorako area garrantzitsuak identifikatzea eta horien kartografia egitea, ugaltzeko areak eta populazioari eusteko beste area erabakigarri batzuk bame, eta populazioen une honetako tamaina eta banaketa ezartzea.	15.000
	30. Lekuko anfibioen populazioak aldizka monitorizatzea, KBEko hezeguneak eskakizunetara ekologikoki egokitzen diren aztertuz eta anfibioen komunitatearengan izan ditzakeen eraginak identifikatuz.	24.000
ANFIBIOAK	31. Urmaelak edota enklabe hezeak berreskuratzeko jarduerak garatzeko leku potentzialak identifikatzea, edota urmael gehiago sortzeko, anfibioak ugaltzeko, existitzen diren populazioen artean konexio onena bilatuz, eta garatzeko programa lehenetsi bat ezartzea.	9.900
	32. Ertzen perimetroan landaredia zerrendak egokitzea, hala behar duten urmaeletan, anfibioak sakabanatzea errazteko areak eta babeslekuak sortuz. Ingurumena zuzentzeko eta babesteko neurriak hartuko dira, hezegune horietatik hurbileneko ingunetan.	13.860

FUNTSEZKO ELEMENTUA	Neurtia/Jarduera	Kostua euroak
	33. Anfibioren populazioak nahastea eta haiek beren ugaltze tokietara helitzea eragozten duten jarduerak identifikatzea eta desagerraraztea.	15.000
	34. Hezeguneetako karramarro seinaleaduna eta arrain gorria kontrolatzea eta, hala badagokio, desagerraraztea, anfibioen lehiakide izanik txertatutako beste espezie batzuk antzeman daitezkeen hezeguneen kasuan.	9.900
	35. Anfibioren balizko heriotza tarreak antzematea errepideetan eta, hala badagokio, kasuan kasuko neurri zuzentzaileak aplikatzea.	8.000
	36. Hobiak eta beste egitura batzuk definitzea eta erakitzea, anfibioak elkartzea bideratuak, hala nola irteera arrapalak eta albo ihesbideak irekitzea.	15.000
	37. Kanadar pasabideen egitura aztertzea, anfibioentzat heriotza eragingo dien trampa izatea saihesteko; hala badagokio, hobietan iragazkortasunerako hobekuntzak egitea, hau da, irteera arrapalak instalatzea eta albo ihesbideak irekitzea.	3.300
	38. KBEn dauden kiroptero espezieak zehaztea, eta, era berean, babeslekuak eta garrantziko eremuak, identifikatzea, eta espezieek habitatan ematen dioten erabileraren ezaugarriak ezartzea eta euren banaketa kartografiatzea. Kiropteroek koloniza ditzaketen KBE barruko erakinen berrikustea jasotzea. Ondorio horietarako area garrantzitsuak "Basoko fauna eta florerentzat balioa duten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georreferentziatua" sartzea.	36.000
	39. Galzorian dauden kiroptero espezieen populazioei eta katalogatutako gainontzeko espezieei jarraipena ematea aidian behin, ugaritasuna kontuan hartuz eta aurreko jardueran aurkitutako babeslekuak berraztertuz.	30.000
KIROPTEROAK	40. Behar diren azterlanak egingo dira kiropteroen habitata garrantzitsuenetan turismo, basogintza, kirol eta beste jarduera batzuek duten eragina ebaluatzeko; eta hala ondorioztatzen bada, jarduera horiek arautuko dira.	5.000
	41. Inbentario irekian sartzea heskai naturalak, zuhaixka erako bigarren mailako espezieen unadak eta baso orlak, kiropteroen joan-etorrietarako eta harrapakinak ugaritzeko interesekoak izan daitezkeenak.	3.500
	42. Tokiko herritarrei eta administrazioetako landa langileei zuzendutako sentsibilizazio kanpainak diseinatzea kiropteroen garrantzia, pertsonentzako onurak, erakinetan edo baserrietan egindako lanek saguzarrengan sor ditzaketen gaitzak eta zuhaizti hilek edo zaharkituek eta euren organismo kidetuek daukaten garrantzia azalduz.	5.940

FUNTSEZKO ELEMENTUA	Neurtia/Jarduera	Kostua euroak
	<p>43. "Basoko fauna eta floranentzat balioa duten edo berezitasun geologikoa duten elementu natural eta geomorfologikoen inbentario ireki georeferentziatu" bat sortzea. Inbentarioan, jasotako elementuen ezaugarriak adierazi behar dira eta, behintzat, bertan jasotzeko arrazoiak zein diren.</p>	11.100
	<p>44. Azterlan bat egitea tresna honetan jasotzen diren neurriak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta errenta galera hori berdintzeko zenbateko eta bitartekoei buruzkoa.</p>	3.000
	<p>45. Entziako KBEko biologia aniztasunaren eta haren ekosistemek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomikoa aztertzea.</p>	5.000
<p>Biodibertsitateari buruzko ezagutzak eta informazioa</p>	<p>46. Entziako KBE eta inguruetatik datozen eta Martiodako Faunaren Suspertegian sartzen diren basa espezie guztien erregistro informatikoa egitea. Bertan, honako datu hauek jasoko dira: lesio mota, arrazoiak eta non batu den.</p>	2.220
	<p>47. Lortutako informazioarekin gune beltzen mapa bat egitea; bertan, honako hauei buruzko informazio georeferentziatua jasoko da: linea elektrikoaren edo beste azpiegitura batzuen aurka izandako talkak eta elektrotutututa, tiroz, pozoi, harrapatuta edota heriotza ez naturalen ohiko beste edozein arrazoigatik gertatutako heriotzak. Neurri zuzentzaileak proposatuko dira, plan honetan eta hurrengoetan sartzeko.</p>	3.300
	<p>48. Lurraldean maiz ibiltzen diren abeltzain, mendiko elkarre eta beste kolektibo batzuei eta Erroeta, Erroitegi eta Zekuanoko herritarrei jakinaraziko zaie mapa egingo dela, eta ingurumenaz arduratzen den saileko langileak begiztatzen berri ematera animatuko dira.</p>	1.780
	<p>49. Herritarrentzat Entziako KBEri buruzko informazio ulergarria eguneratzeko prozesuak hobetzea.</p>	4.440
<p>KOMUNIKAZIOA, HEZKUNTZA, PARTE HARTZE ETA HERRITARREN KONTZIENTZIA</p>	<p>50. Iturrietako Granjako instalazioen aprobetxamendu aukerak aztertzea, bisitarientzako zentro bat eta EAEko basoetan eta nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza ustiategi iraunkorrean arreta jartzen duen interpretazio programa bat ezartzeko.</p>	12.000
	<p>51. KBEren ezaugarri bereziak edo erabilera publiko berezia duten lekuetan, ingurune bakoitzari egokitutako seinaleak instalatuko dira, KBE nahiz haren ingurumen balioak identifikatzeko.</p>	
	<p>52. Munaín edo Okarizen interpretazio panel bat jartzea askaldegitik gertu, biodibertsitatean zuhaitz lepatuek, zuhaizti zaharren simulatzaile, duten garrantzia azaltzeko.</p>	2.160

FUNTSEZKO ELEMENTUA	Neurtia/Jarduera	Kostua euroak
	53. Jada dagoen Murnain-Okariz ibilbidea aprobetxatuz, ibilbide didaktiko bat egokitzea; bertan, zuhaitz bereziak dituzten unadak, mota askotako basoak eta otalurreko hainbat elementu ikusi ahaliko dira.	12.000
	54. Jendeari jakinarazi basogintza kudeaketa giltza izan daitekeela baso habitaten zaintza helburuak lortzeko.	3.000
	55. KBEri eta bere helburuei buruz herritarrek duten ezagutza, jarrera eta jokabidea aztertzeke aldizkako ebaluazioak egitea; horrela, komunikazio, hezkuntza eta kontzientziatze ekintzak berriro orientatu ahal izango dira.	
	56. Isurketa iturrien eta beste eragin batzuen inbentarioa egitea.	3.000
	57. Kontrolik gabeko isurketen eragina jasan duten eremuak lehengoratzeta.	60.000
	58. Beste eragin batzuek (higadurak, harrobi eta legar hobi zaharrak, etab.) hondatutako eremuak berreskuratzea, espazio horiek ingurumen aldetik lehengoratzeko.	150.000
	59. Lotura ekologikoaren arloan onartutako estrategiak aplikatzea, KBEn batasunaren intereseko eta/edo lehentasunezko habitaten arteko lotura bultzatzeko. bai eta hurbil dauden Natura 2000 Sareko beste habitak katalogatu batzuekin eta orokorrean mugakide diren eta ingurumen aldetik interesa duten esparruekin ere. Lotura aldetik interesa duten guneak identifikatu, eta bidezkoa bada kontserbatzeko eta hobetzeko jarduketak inplementatuko dira.	60.000
INGURUMENA LEHENGORATZEKO ETA KONEXIO EKOLOGIKOA SENDOTZEKO JARDUERAK	KOSTUA GUZTIRA	791.480